

• MATTIN •



Dreams About!

• ITXARO BORDA •

[IDAZLEA]

Zer eska dakioke idazle batek, aldi berean urte eta datorkion mende berriari? Gauza handirik ez naski, non ez den idazteko denbora eta argitaratua izaiteko segurtamen izpia. Idazten ditugunak, zatika eginak dira, lanaren eta hitzorduen artean, eta argitaratzeko ahalmena ez da sekula argi izkribatzen den uneen bederen. Iparraldeko idazleen egoeraz ari naiz bixtan da, eta ildo hortarik jarraituko dut.

Alabaina, iparraldeko idazleok nekez baizik ez ditugu geure buruak idazle-nortasun osoan kokatzen, hizkuntzaren edo ihardoki ekonomikoren aldetik zalantza beteak baigara. Ikusten ditugu erdal eta zenbaitetan euskal aldizkarietan, irakurtzen halaber, etxe handietan eta mintzaira bermatuetan izkiriartzen dutenen elkarriketak zein argazkiak. Non dago gure Hizkuntza? Eskubiderik ez du, barenari are gutiago kanpoari begira. Ofizialtasun maila askoren gerizatik at idaztera behartzen gaitu errealitateak. Hizkuntza indartsuak eskain dezakeen sekuritatean idazten dutenen kreatzeko bakeaz gutiziatsu bihurtzen gara bakarretan, gu, beste izkiriartzeko zerak oro bururatu ondoan idazten ari garenak.

Gauza garbia da, dena den, greba edo manifestazio baterako dei baten paperean etzatea oraino ere idaztea dela eta halaxe sinestera bortxatuak gara ondikotz; baina ez da literatura. Hor dago koxka, dioten maneran; manifestazio edo greba batek ez du ageriko lotura izpirik literatu-

rarekin. Idazle bat, Emile Zola edo Claire Etcherelli demagun, lan munduko «zapartatze» erraldoietaz adibidez, mintza daiteke, gertakizunaren ondotik hazten den premiazko distantzia harekin. Distantzia hori bai literaturara dela.

Azkenean, itxuraz gain, idazterakoan iparraldeko idazleok «ekai haragitsu eta burbuilatsuarekilako» urruntasun zuhurra eskas dugu, gutiz gehienok. Berdinki, aipatu urruntasun horren zurunbiloan sartzen den denbora edo astia. Halatan, hizkuntz prekarioaren alde eta hizkuntz prekarioan ekiteko urgentsia ere behialako zurrunbiloan urtzen ahal liteke. Baina ez gara hortan. Ordea, karia hortara, plazerrekin leitu dut *Maiatz* aldizkariaren ondar zenbakian, Hur Apalategi nola agertzen den, idazki batean, Atxagari buruzko tesia asmatzen eta izkiriartzen idazkiaren eta bere buruaren artean, narzizismoaren buhakoa jarritz. Narzizismo mota hori on da literaturan, orozbat sorkuntzaren alorrean, norberarekiko so maitekor eta nostalgikoa. Erran daiteke, bide hortarik segituz, laster iparraldean hegosaldean diren idazleen parekoak izango direla, zehazki beren

lanaz mintzatuko direnak eta hortaz zerbait funtsezko ahozkatzeko ukanen dutenak. Distantzia gaiarekiko, distantzia norberarekiko: «inplikatu» gabe idatzi. Ez diet besterik opatzen, Bidasoaz honaindian ditudan idazle kolega guziei.

Eta nik, zuek bezala adiskideak, amets dagit datorren milenario hastapenean —2010.eko

„
*Eta nik, amets dagit
datorren milenario
hastapenean
—2010.eko epea
garrantzitsua baita
iparraldean— Obra
handia, hitz-ezpalka
kometitzen ahalko
dudala*

epea garrantzitsua baita iparraldean— Obra handia, hitz-ezpalka kometitzen ahalko dudala; ez dakit, judeo-kristautar zein greko-erromatar mitoz hantatu texto «unibertsal» bat, saga nordiko bat —ez naizea norteko nihaur?— enea onarpen gabeziat botere publikoek desagertzera utzi

ondoan munduko hizkuntz nausietara itzuliko den lana hots! Ametsak amets, idazle «seriosa» ez naizenez, Balzac hitzak ezarriko ditut hurrengo nobelaren lehen orrialdean eta honekin bat nator «*Tu pourrais être un grand écrivain, mais tu ne seras jamais qu'un petit farceur*», badakit ez dudala jarri dudun helburua nehoiz lortuko, bi munduren arteko zubia baino ez naizelako. Kontzientzia osoz gainera.

Zubiak erabiltzen dira eta ez begitatzten.

LORE ERRIONDO

Gabonak



Aurtengoak ere ia joan zaizkigu eta, beti balantzetan gabiltzanez, halako joera izan ohi dugu urte berria dela eta ez dela berritze, aldatze eta eskatzeko. Jakina da askok oso gaizki bizi dutela garai hau, murmurka, zergatik ez dakitela, baina urte berriarekin batera pasa eta berregokitzen dira.

Baliteke kristautasunaren asma-

kizun edo egokitzen okerrean sustaia izatea, eta honekin ez nuke kristaurik mindu nahi. Entzun dugunez, egutegia bera egiterakoan ez zuten bada hanka sartu! Dagoeneko okerreko urtean biziko gara betiko beraz, eta hau horrela izanik, nolatan ez gara beti nahasturik ibiliko egutegiari lotuta bizi bagara? Jesus haurtxoa ere ez omen zen ospatzen den egunean jaio, udaberri aldera baizik, eta egun, okerreko egunean ospakizunak egiten, eta nolakoak gainera! Kontsumismoa esaten diote fede berriari. Eskerrak herri zaharra garen oso eta kristautasunak, bera baino zaharragoak ziren ospakizunetara egokitu eta sortu zituen bereak, ez digula halako zapuzketa eta kontraesanik sortzen. Okerrena baino, azalekoari kasu egiten dionaren kamustasuna da eta horrek sortarazten dituen iskanbilak. Zer gertatzen da Erregeen opariak jaso behar dituzten haurrekin, kometa edo izar edo ez dakit zein planeta ikusi eta atzetik joan eta gainera datak ez badatoz bat? Oparirik gabe Erregeetan jasotzen dituztenak?

Eskerrak Olentzero ikazkin genuela eta zerura baino lurrera begira zegoela, aldamenen zaku handiak lagun beti. Ziurtatuta guk eguzki, ilargi, Jesus ala Juanjo izan. Antzerakoak gertatu izan dira gobernu berriaren inbestidura saioan, nahiz eta erabilitako hitzak —diskurtsoa dotoreago omen— bestelakoak izan. Egin, egiten eta egingo duguna dugu eta izango dugu giltzarri. Hor dira Barrionuevo, Vera eta koadrilla guztia, eta non, aldiz, aipatzeko adinako tarterik ez dugun izen-abizeneko zerrenda luzea? Hor bazterketaren mamu erabilgarria. Pezeta eta libera baino euroa laster batean; hala ere, trukeari ez diogu utziko. Hemendik aurrera bada, sekulan baino indar handiagoz eutsi beharko diogu lehengoari, hurrengorik nahi badugu.

...kornerra

MIKEL ELORTZA

Bizarrak

■ Krisi existentziala, amodio eta desamodioak, bizimodua sorgin-gurpil batean sartu ote den... 40 urteetako krisia gairatzeko gauza den erakutsi beharko du Kubak. Fidele iraultza bizartsuak 40 urte egin ditu atzo, eta kanpoan eta barruan makina bat esku daude labana hartu eta bizarrarekin batera lepoa egiteko prest. Merkatu libreak aurpegi garbiak, berdin moztuak eta apainduak, kolonia usain berekoak nahi ditu eta bizar espezialik ez du onartzen.

EBn, 60-70etako bizar herabetiak aspaldi soilduta, biboteak gure hondakinak garbitzera datozen etorkinei utzita, txanponak ere berdindu ditugu. Bolada txarra bizi ditu bizarrak. Euskal Herrian itxaropentsu helduko diogu urte berriari, bizarra egiteko labana guk eutsi ahal izateko asmoz pausoak ematekotan. Afterxeibak guk lurrintzeko ideiaz. Baina hori bai: gu ere bizarra egiteko asmotan.